

Gako-hitzak:
Pop kultura.
Postmodernitatea.
New Urbanism.
Estatu Batuak

Ander Gortazar °



Less is a bore: Hirigintza postmodernoa Estatu Batuetan

Kasualitatea izango da, baina New Yorkeko dorre bikiak ez ziren izan Minoru Yamasaki arkitektoari eraitsi zizkieten lehen etxe-orrazak. 1972ko martxoaren 16an, Ameriketako Estatu Batuetako St. Louis hirian, Pruitt-Igoe auzuneko lehen etxebizitzita-erakina bota zuten lurrera, eraiki eta hogei urte eskasera.

Pruitt-Igoe arkitektura modernoaren adibide garbia zen: ha- maika solairuko 33 dorrek 2.800 etxebizitza jasotzen zituzten, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo testuinguru zailan. St. Louis hiriaren zaharberritzearen giltzarri behar zuenaren gainbehera berehala hasi zen, ordea: etxebizitzaren okupatze maila ez zen % 60ra iristen, eta auzunea sozialki homogenea eta arriskutsua zen. Faktore sozialak baino gehiago, **askoren ahotan errudun nagusia beste bat zen: arkitektura bera, Mugimendu Modernoa**. Ez da harritzekoa, beraz, Pruitt-Igoeren eraispena arkitektura eta hirigintza modernoaren heriotzarekin identifikatzea, bai eta joera berri baten hedapenarekin ere: postmodernismoa.

Postmodernismoa arrazionalismoaren usteko krisi bati emandako erantzuna da, Mugimendu Modernoaren berrirakurketa edo haren kontrako pentsamendu korrantea, aditu eta lekuaren arabera. Anbigua da definizioz: ezberdintasunaren ospakizuna, arrazoiketa eta egia absolutuarekiko mesfidantza. Eta hara non, definizio bat bilatzen dugun bitartean paradoxa batekin egiten dugun topo, postmodernismoa modernitatearen arrazoiketa-tresnen bidez definitu behar dugun heinean (1).

1 Hiria ulertzeko era berria: plangintzatik diseinura

Postmodernoek hiriaren konplexutasuna kaosarekin nahastea aurpegiratzen zioten mugimendu modernoari, hau da, ordena ezarri nahi izatea egiazko hiriaren aniztasunari jaramonik egin gabe.

Mugimendu berriak, hiriaren egituraz jardun beharrean, hiriaren esperientziaz hitz egiten zuen: herritar eta herritar taldeen psikologiak, haien elkarrekintza eta berezitasunez, eta ondorioz, hori guztia gertatzen den lekuaren, hau da, hiriaren, irudi eta errepresentazioak. Hala, **hiria, antolatu baino, diseinatu beharreko zerbait bezala ulertzen zuten**, ingurune zehatz bakoitzak eskatzen zuen ildoaren arabera.

American dream sinbolikoa eta oparoaldi ekonomikoa tarteko, Ameriketako Estatu Batuetako hirigintzak azkar egin zituen bere kontzeptu hauek guztiak. Pop irudi-sortzaile bikaina, hirigintza postmoderno estatubatuarrak ibilbide interesgarria jorratu du XX. mende erdialdetik hona.

Argudioen hastapenak: Jane Jacobs

Ikuspuntu modernoa oraindik nagusi zela, Jane Jacobs idazle eta ekintzaileak eraiki zituen sendoen arrazionalismoaren kontrako argudioak. *The Death and Life of Great American Cities* liburuan (1961) hirigintza modernoaren ajez aritu zen, hiria arbuia eta auzoetako elkarbizitza suntsitzen zuela-

koan. Ordena eta efizientzia bezalako kontzeptu modernoek kontrajarriz, ageriko kaosa eta berezitasuna aldarrikatzen zituen; ondorioz, auzo historikoen kontsolidazioa, oinezkoen lehentasuna, dentsifikazioa eta *mix of use* politikak defendatzen zituen erabilera bakarrek zoning, *sprawl* (hiri sakabanatua) eta autoaren erabilera masiboaren kaltean.

Jane Jacobs, prestakuntzaz, ez zen arkitektoa ez eta hirigilea ere. Haren ondarea ideologikoa izan zen, eta garaiko hainbat proiektu gelditzeko ezinbestekoa izan zen, New Yorkeko *Lower Manhattan Expressway* autobidea kasu. Antolakuntzarekin lotutako cityscape kontzeptuari kontrajarria, erabiltzailearen ikuspegitik egindako townscape-a aldarrikatzen zuen, laurogeita hamarrek hamarkadan *New Urbanism* mugimenduak erabiliko zuen leloa.

2 Kontraesana hizpide: Lynch eta Venturi

Hor dago tunela, hor dago Hudson ibaia eta gauza horiek guztiak... Eskuinetara begiratzen dut beti ea zera ikusten dudana... Askatasunaren Estatua... Gero begirada altxatzen dut beti Empire State Building-a ikusteko, zer eguraldi egiten duen jakiteko... Benetako zoriontasuna eragiten dit nonbaitera noalako, bara eta hona joatea gustatzen zaidalako.


Holland Tunela (New Jersey) herritar baten hitzetan (2).

Arkitekturaren diziplinari lotuago testuinguru batetik, Kevin Lynch eta Robert Venturik ere arkitektura eta hiria erabiltzailearen ikuspegitik aztertu zituzten, “hiriaren tamaina, denbora eta konplexutasuna ulertzeko ezinbesteko baldintza baita”.

Ikuspegi aldaketa hau irakurgarritasunaren kontzeptuarekin lotu zuen Lynchek *The Image of the City* liburuan (1961); irakurgarritasuna, hiriko atal ezberdinek biztanleriak antzeman eta arau koherente baten arabera antolatzeko duten gaitasun gisa definituz. Hiriaren irudi garbiak (Manhattan eta Boston jartzen zituen adibidetzat) segurtasuna, elkarrekintza eta giza esperientziaren intentsitatea bermatzen zituelakoan, elementu hauen tipo formalak aztertu eta bost taldetan sailkatu zituen, hots, bideak, ertzak, auzoak, nodoak eta mugarriak. Elementuon irakurgarritasuna erraztuko zuten aukera bisualak indartzea zen haren hirigintza lanen ezaugarri nagusia (ikus irudia).

Kevin Lynchek hiria izatez denaren eta erabiltzaileek hura ulertzeko duten moduaren arteko kontraesanean sakondu bazuen ere, Robert Venturik arkitekturaren formaren arloa eraman zuen eztabaida, *Complexity and Contradiction in Architecture* saiakera liburuan (1962). **Kontraesana gauza fisikoaren eta haren efektu psikikoaren artekoa da, izatez denaren eta dirudienaren artekoa**; honen emaitza gisa ulertzen ditu Venturik anbiguotasuna eta tentsioa, eta ozen aldarrikatzen manifestu postmodernotzat jotzen den lanean (3).

Less is a bore. Horra hor Mies van der Roheren *Less is more* modernoari erantzundakoa.



Brookline (Massachusetts) hiriko "aukera bisualak", Kevin Lynch, 1965

Arkitekturaren formaren inguruko ikerketak sinbolismoari eman zion bide *Learning from Las Vegas* liburuan (1977), non goi-kulturako arkitektura (hots, Mugimendu Modernoa) ezbaian jarri zuen. Argudiatzen zuen arkitektoak herriaren gustuari jaramon gehiago egin behar ziola; gustu herrikoia, kutsadura akademizistarik ez zuela-eta, baliotsuagoa baitzen. Pop kulturaren jarraitzaile eta guruaren ustez, Las Vegas proletalgoaren *lokomotora kultural handia* da.

"Jende askok *sprawl*a gogoko du". Baieztapen honetatik abiatuta egin zuen Las Vegas eredu eta hiri sakabanatuaren irakurketa positiboa.

Barkaiezadazu, irakurle, ageriko kontraesan bat aurkitu baduzu. Postmodernismoaren hastapenetan, Jane Jacobsen ildotik, herritarren ongizatearen izenean hiri sakabanatua eta autoaren gehiegikeriak salatu baziren ere, Robert Venturik kontrakoa ondorioztatu zuen *gustu herrikoia* delakoa aintzakotzat hartuta. Hala, arkitekturaren formaren inguruko ikerketa behar zuenak hiri plangintzaren arloa zipriztindu zuen, ageriko hainbat kontraesanekin.

3 Hiri produktu postmodernoak

Izan ere, hirigintza postmoderno amerikarrak emaitza kontraesankorrek izan ditu, Venturiren pop estetikaren teoriatik gertuago daudenak Jane Jacobsen idealismo sozialetik baino.

Auzo historikoen kontsolidazio estrategiek, adibidez, *gentrifikazioa* izan zuten ondorio. Gentrifikazioa eremu zehatz bateko biztanleria-ordezkapena da; zaharberritze politikak tarteko, maila altuagoko talde sozialen etorrerak tokian tokiko merkatu oreka aldatu eta bertako bizilagunen ihesa eragiten du. Emaitza bizilagun berrien neurria diseinatutako hiri-zatia homogeneoak dira, iraganetik edo eredu idealetatik ateratako atmosferaz jantziak, non eraikin tipologia zaharrak bizi-estilo arrakastatsuen ikono bilakatzen diren. New Yorkeko Greenwich Village fenomeno honen adibide esanguratsua da.

Shopping mall ere hiri postmodernoaren produktu bezala definitu ohi da. Hirurogeiko hamarkadatik aurrera merkataritza-zentro bihurtu zen hiritik at bizi zen jendearen espazio publikoa, bai eta haien irudi kolektibo nagusia ere. Kanadako *West Edmonton Mall* paradigmatikoa da: hogeituz munduko merkataritza-gune handiena izan den hau herritar xumearen gustu ofizialen arabera entsalada da. Osagai estetikoen artean, Pariseko bulebarrak, New Orleanseko Bourbon Street eta Txina bera (4).

Esan beharrik ez dago, adibideok gehiago dute estilo postmodernotik, hirigintza modernoari kontra egin nahi zion Postmodernismo goiztiar hartatik baino.

New Urbanism: nahi eta ezin

Baina AEBko postmodernismoaren produktu aipagarriena, agian, New Urbanism mugimendua izan da. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran sortua, hogei urte lehenago Jane Jacobsek aipaturiko hainbat ideiatan oinarritzen da.

Printzipioak, jakinak: oinezkoiei lehenetasuna eman eta eguneroko beharrak 10 minutuko distantzia maximoan kokatzea, erabilera eta etxebizitza nahasketa bultzatzea heterogeneotasun soziala lortu nahian, *kalitatezko* arkitektura eta diseinu atsegina sustatzea eta jasangarritasuna bermatzea, besteak beste.

More walking, less driving?

Hala eta guztiz ere, errealitatea setatua da eta printzipio hauek guztiak lurperatu egin ditu. Funtsean, New Urbanism herriak sozialki homogeneoak eta autoarekiko menpekoak dira, non familia bakarrek etxebizitzek bukolikoa izan nahi duen arkitektura zurruna segitzen duten. Seaside (Florida) adibide esanguratsua da: *The Truman Show* filma ikusi duen edonork, han filmatu baitzen, erraz antzeman dezake Truman Burbank-en sorterriari darion kistch fantasia manufakturuaren kiratsa.

The Death and Life of Great American Cities argitaratu zenetik mende erdia pasa denean, egilearen *utopia kulturalistak* faktore ekonomikoen aurrean porrot egin duela esan daiteke, haren ideiek azalean soilik biziraun duten heinean. Izan ere, postmodernismoaren hiri-produktuak (zaharberritze prozesuetatik New Urbanism eta merkataritza-zentroetara) merkatuaren indarraren erakusle garbia dira; hori bai, gizarte perfektua irudikatzen duen opari paperean bilduak.



Bibliografia

- (1) ALLMENDIGER, P. (2001): *Planning in Postmodern Times*, Routledge, Londres [ISBN 13 978-0415234238].
- (2) LYNCH, K. (1998[1960]): *La Imagen de la Ciudad*, Editorial Gustavo Gili, Bartzelona [ISBN 84-252-1748-2].
- (3) VENTURI, R. (1994[1962]): *Complejidad y Contradiccion en la Arquitectura*, Editorial Gustavo Gili, Bartzelona [ISBN 84-252-1602-8].
- AMENDOLA, G. (1997): *La Ciudad Postmoderna. Magia y miedo de la Metrópolis Contemporánea*, Celeste Ediciones, Madrid [ISBN 84-8211-239-2].
- JUARISTI, J. (2001): *Espacio urbano y territorio en la Geografía de la postmodernidad*, EHU, Donostia.
- JACOBS, J. (1993[1961]): *The Death and Life of Great American Cities*, Random House, New York [ISBN 0-679-60047-7].
- (4) *Donostiako Hiri Ordenazijoko Plan Orokorra. Hasierako onespina* (www.donostia.org).

° Ander Gortazar arkitektoa eta blogaria da. (niezazhemengoa.wordpress.com)